


Euskal AEko familia bakoitzeko batez besteko gastuak gora egiten jarraitu du 2019an, eta krisiaren aurreko mailan kokatu da

Euskal AEko familien guztizko kontsumo-gastua 31.371 milioi eurora iritsi zen 2019an, eta, beraz, 2018an baino % 1,3 handiagoa izan zen


Familia bakoitzeko batez besteko gastua 34.423 eurora iritsi zen 2019an (aurreko urtean baino % 0,6 gehiago), eta 2015ean hasitako goranzko joerari eutsi dio, Eustatek landutako datuen arabera. Nolanahi ere, krisi ekonomikoaren aurreko gastu-maila lortu zen ia, familien gastua 34.672 eurora iritsi baitzen 2008an; eta, hori guztia, uneko terminoetan.

Familia bakoitzeko batez besteko gastuak 2006-2019ko serie osoan izan duen bilakaera aztertuta ikus daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren batezbestekoa Espainiakoa baino handiagoa izan da aldi osoan; 2019an, zehazki, % 13,8 handiagoa izan da.



Euskal AEko **pertsona bakoitzeko batez besteko gastua** 14.524 eurora iritsi da 2019an, eta urtetik urterako % 0,8ko igoera izan du. Nolanahi ere, Espainiako batezbestekoa baino % 19,5 handiagoa izan da. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuaren bilakaerari dagokionez, Euskal AEn gastuak gora egin du 2015. urteaz geroztik, eta pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 2008an egindakoa baino % 7,0 handiagoa izan da 2019an.

Pertsona bakoitzeko batez besteko gastua



Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Gastu-taldeak kontuan hartuta, 2019an euskal familien batez besteko gasturik handiena *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* taldekoa izan da berriz, eta aurreko urtekoa baino % 2,1 handiagoa izan da. Bigarren gasturik handiena *elikaduran eta alkoholik gabeko edarietan* egindako gastua izan da, eta maila berean jarraitu du, 2018. urtearekin alderatuta % 0,3ko igoera izan badu ere. Aldiz, aurreko urtearekin alderatuta, familia bakoitzeko batez besteko honako gastu hauek murriztu dira gehien: *Altzariak, etxeko gaiak eta etxearen ohiko mantentzerako gaiak* (-% 10,0), *Jantziak eta oinetakoak* (-% 5,0), *Osasuna* (-% 2,7), *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (-% 2,4) eta *Edari alkoholodunak eta tabakoa* (-% 1,9).

**Ettxeko batez besteko gastua (euroetan) eta gastuaren banaketa portzentuala (%) gastu-taldean arabera (*).
2018-2019**

	Euskal AE			Espainia	
	Ettxeko batez besteko gastua			Banaketa portzentuala (%)	Banaketa portzentuala (%)
	2018	2019	2019/2018 Δ%	2019	2019
GUZTIRA	34.212	34.423	0,6	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.688	4.704	0,3	13,7	14,2
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	444	436	-1,9	1,3	1,7
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.631	1.550	-5,0	4,5	4,7
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	11.471	11.716	2,1	34,0	31,2
05 T Altzariak, etxeko artikuluak eta etxearen mantentze normalarentzako artikuluak	1.647	1.482	-10,0	4,3	4,4
06 T Osasuna	1.235	1.202	-2,7	3,5	3,5
07 T Garraioa	3.547	3.692	4,1	10,7	12,9
08 T Komunikazioak	989	981	-0,8	2,9	3,1
09 T Aisia eta kultura	1.780	1.764	-0,9	5,1	5,5
10 T Irakastuntza	562	616	9,7	1,8	1,6
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.633	3.756	3,4	10,9	9,7
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.585	2.524	-2,4	7,3	7,6

* ECOICOP/FGE 2 digituekin

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Gastu-egitura kontuan hartuta, 2019. urtean eutsi egin zaio euskal familien kontsumo-egiturari, eta 4 gastu-talde nagusietan guztizko gastuaren % 69,3 egin da. Haien artean, honako hauek nabarmendu dira: *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* (familien aurrekontu osoaren % 34,0), *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (% 13,7), *Jatetxeak eta hotelak* (% 10,9) eta *Garraioa* (% 10,7). Haien atzetik, honako hauek kokatu dira: *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (% 7,3) eta *Aisia eta kultura* (% 5,1). 2018. urtearekin alderatuta, ez dago alde handirik gastuaren egiturari dagokionez. Nolanahi ere, euskal familien aurrekontuan gehien aldatu diren gastuak *etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta beste erregai batzuei* lotutakoak izan dira; zehazki, % 33,5etik % 34,0ra igo dira. *Altzariei, etxeko gaiak eta etxearen ohiko mantentzerako gaiak* lotutako gastuek, berriz, portzentajezko puntu-erdiko beherakada izan dute, eta, zehazki, familien gastuaren % 4,8tik % 4,3ra jaitsi dira 2018tik 2019ra bitarte.

Euskal Autonomia Erkidegoko gastuaren egitura eta Espainiako gastuarena alderatuta ikus daitekeenez, 2019an euskal familiek etxeko aurrekontuaren portzentajezko 2,8 puntu gehiagoko gastua egin zuten *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* taldean, eta portzentajezko 1,2 puntu gehiagokoa *Jatetxeak eta hotelak* taldean. Aldiz, *Garraioan*, Espainiako familiek baino portzentajezko 2,2 puntu gutxiagoko gastua egin zuten.

Termino absolutuetan, kontsumoko **gustizko gastua** 31.371 milioi eurokoa izan zen 2019an, hau da, 2018an baino % 1,3 handiagoa. Nolanahi ere, bilakaera desberdina izan da gastu-taldearen arabera. Zehazki, gastu-bolumenean esanguratsuenak izan diren bi taldeei dagokienez, *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* taldeko guztizko gastuak % 2,8ko igoera izan du, eta *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* taldekoak, berriz, % 1,0koa. *Garraioa* taldeko gastuak, berriz, % 4,8ko igoera izan du, eta *Jatetxeak eta hotelak* taldeko gastuak % 4,0koa. Aldiz, *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* taldeko gastuak % 1,8ko beherakada izan du. Bestalde, esanguratsua da *Irakaskuntzari* lotutako gastuak 2018koarekin alderatuta izan duen igoera (% 10,4koa), baita *Altzariak, etxeko gaiak eta etxearen ohiko mantentzerako gaiak* taldeko gastuak eta *Jantziak eta oinetakoak* taldeko gastuak izan duten beherakada ere (-% 9,4 eta -% 4,3, hurrenez hurren).

Familia bakoitzeko batez besteko gastua **familiako hileko diru-sarrera garbien mailaren arabera** aztertzean ikus daitekeenez, 2019an gora egin du 1.000-1.999 euroko hileko diru-sarrerak

dituzten familien kasuan; aldiz, atalase horretatik gorako diru-sarrerak dituzten familiek murriztu egin dute gastu-maila. Zehazkiago, 1.000-1.999 euroko errentak dituzten familietan, gastuak % 3,8ko igoera izan du, eta 26.103 eurora iritsi da. Hilean 3.000 euroko edo gehiagoko diru-sarrerak dituzten familiek, berriz, 49.876 euroko urteko batez besteko gastua izan dute, hau da, 2018. urtekoa baino % 0,3 txikiagoa. Hilean 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familien kasuan, berriz, urteko batez besteko gastua 16.715 eurokoa izan da, hau da, aurreko urtean baino % 3,5 txikiagoa. Azkenik, hilean 2.000-2.999 euroko diru-sarrerak dituzten familien kasuan, batez besteko gastuak % 1,2ko beherakada izan du, eta 34.655 eurora iritsi da.

Familia-etxearen kokapen geografikoaren arabera gastuari dagokionez, familia-etxe bategi besteko gasturik handiena 10.000 biztanletik beherako udalerrietan egin da. Zehazki, familia bakoitzeko gastua 37.152 eurokoa izan da, hau da, Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino % 7,9 handiagoa. Familia-etxe bategi besteko gasturik txikiena (33.676 €) 10.000-100.000 biztanleko udalerrietako familiek egin dute. 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, batez besteko gastua 2018an baino % 2,2 handiagoa izan da, eta 33.915 eurora iritsi da.

Lurralde historikoaren arabera, Arabako familiek Euskal Autonomia Erkidegoko guztizko kontsumo-gastuaren % 13,7 egin zuten, Bizkaikoek % 52,8 eta Gipuzkoakoek, berriz, % 33,5. Batez besteko gasturik handiena Gipuzkoako familiek egin zuten, eta familia bakoitzeko 35.679 eurora iritsi zen. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko gastua baino 1.255 euro handiagoa izan zen (34.423 euro EAEn). Bizkaian, familia bakoitzeko batez besteko gastua batez bestekoa baino handixeagoa izan zen (34.608 euro), eta Araban, berriz, 31.103 eurora iritsi zen.

Oharra: Familia-gastuaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (EIN) lankidetzan egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62